1 9 5 1

# Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua. Europar federalismoaren aldeko euskal ekarpena

# El Consejo Vasco del Movimiento Europeo. La aportación vasca al federalismo europeo

2 0 0 1

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Acción Exterior

EUROPAKO MUGIMENDUAREN EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO DEL MOVIMIENTO EUROPEO

FUNDACIÓN SABINO ARANA KULTUR ELKARGOA

EUSKAL MUSEOA BILBAO MUSEO VASCO

**Otsailaren 2tik-martxoaren 4ra**
**Del 2 de febrero al 4 de marzo**

Euskal Museoa-Museo Vasco
María Muñoz, z/g. BILBAO

## *Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua (1951-2001)*

*20001eko otsailean* ***Europar Federakuntzaren aldeko Euskal Kontseiluaren*** *50. urteurrena ospatzen dugu -egungo* ***Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua****-. Erakunde hau honako arrazoi hauengatik nabarmentzen da: euskaldunen partaidetza europar eta federalista joeretan eta Europar Mugimenduan ahalbidetzeagatik; Europako erainkuntzaren segimendua euskal ikuspuntutik egiteagatik; Euskal Herriaren nazioarteko hedapenean laguntzeagatik; eta alderdi politikoen aldetik erakunderik zabalenetariko bat osatzeagatik.*

## Consejo Vasco del Movimiento Europeo (1951-2001)

En febrero de 2001 conmemoramos el cincuenta aniversario del **Consejo Vasco por la Federación Europea**, actual **Consejo Vasco del Movimiento Europeo**. Es una destacada entidad por: posibilitar la participación de los vascos en las corrientes europeístas y federalistas y en el Movimiento Europeo; realizar un seguimiento de la construcción europea analizándola desde la perspectiva vasca; contribuir a la proyección internacional del País Vasco; y constituir uno de los organismos más amplios respecto a tendencias políticas.

# Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua

### • *Federalismoaren aldeko hasierako ekarpenak (XX. Menderaren lehen erdia)*

*XX. mendean zenbait alderdi politiko europar ideiekin bat etorri ziren estatuko eta Europako egitura federalistetan Euskal Herriaren sartzea iradokiz. Munduko II. Gerratearen garaian zenbait ekimenetan partehartu zen: Europar Federakuntza baten aldeko euskal proposamena; Mendebaldeko Europako Herrien Kultur Elkartasunenan eta Europako Kontseilua Ameriketan agertzea eta ekarpen doktrinalak.*

*1947an* ***Euskal Mugimendu Federalista*** *sortzen da, Europako Federalisten Elkartasunari erantsia. Europako Kongresura zenbait euskaldun joan zen (Haga, 1948). Geroago, honako hauek osotu ziren:* ***Nazioarteko Talde Berrien Euskal Taldea****;* ***Europar Federakuntzaren aldeko Euskal Mugimendu Sozialista****;* ***Europako Elkartasun Liberalaren Euskal Taldea****; eta* ***Europako Elkarte eta Herrialdeen Kongresuko Euskal Taldea****.*

### • *Europar Federakuntzaren aldeko Euskal Kontseiluaren sorkuntza (1949/1951)*

*Europar Mugimenduan partehartzeko estatu mailako erakunde bat sortu behar zen, Parisen (1949ko otsailean) Europako Mugimenduaren Espainiako Kontseilu Federala fundatuz, hau Europako Estatu Batuen aldeko Mugimendu Sozialista, Elkartasun Liberala, Kataluniako Kontseilua eta Euskal Kontseiluak osotuz. Geroago, honako hauek elkartu ziren: erregezale europazaleak, demokrata-kristau federalistak eta Galiziako Taldea.*

*Euskal Kontseiluak* ***Europar Federakuntzaren aldeko Euskal Kontseilua****ren hasiera suposatu zuen. 1951eko otsailaren 1ean Euzkadiko Jaurlaritzaren Pariseko egoitzan gauzatu zen, honako talde hauek osatuz: Euskal Mugimendu Federalista, Nazioarteko Talde Berriak, Europar Federakuntzaren aldeko Euskal Mugimendu Sozialista, Federalisten Europar Elkartasuna, Europar Gutxiengo eta Herrialdeen Kontseilu Federala, Nazioarteko Elkartasun Liberala, Gazte Federalistak, Nazioarteko Talde Berrien Gazteen Atala eta Europa Batuaren aldeko Kristau Langileak. Orduan lehenengo Zuzendaritza Batzordea izendatu zen.*

### • *Frankismoan eginiko iharduerak (1951/1975)*

*Frankoren garaian* ***Europar Federakuntzaren aldeko Euskal Kontseilua*** *ikuspuntu europazale eta federalista zuen euskal erakunde bakarra zen. Parisen egonda ere, barnealdean isilpeko atal bat eratu zen. Hamarkada haietan honen ekarpenik nabarienak honako hauek izan ziren: Euzkadiko Jaurlaritzak erbestean eginiko kanpoko egintza osatu; euskal zioaren nazioarteko hedapenean lagundu; Europako integrazioaren segimendua euskal ikuspuntu politiko, ekonomiko, sozial eta kultural batekin egin; eta frankismoaren aurkako gainerako oposizioarekin elkarrekin bat lan egin bai kanpoan bai barnealdean.*

### • *Barnealderako lekualdatzea eta gelditasun epea (1976/1994)*

*1976an Europako Mugimenduaren Espainiako Kontseilu Federala eta bere partaideak,* ***Euskal Kontseilua*** *besteak beste, Estatu espainiolara mugitu ziren eta egoera politiko berriaren arabera berrantolatu ziren. 70ko hamarkadaren amaieran eta 80ko hamarkadaren hasieran Euskal Kontseiluaren bizkortzeko asmoa izan zen. Baina, euskal indar politikoen lehentasunak beste batzuk zirenez gero, erakundeak gelditasun epe bat jasan zuen 90ko hamarkadara arte.*

### • *Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluaren bultzada berria (1994/2001)*

*Eusko Legebiltzarrako alderdi politikoekin harremanetan jarri eta gero, 1994ko apirilean* ***Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua****ren "Bultzada berrirako adierazpena" hedatu zen. 1994ko maiatzan Gernika-Lumon aurkeztu zen. Honen helburu historikoak bermoldatu ziren: Euskadik beste herri, herrialde eta nazioekin dituen harremanak bultzatu; Europa batu eta desberdin bat bermatu; demokrazia eta Europar Batasunaren eraikuntzaren idealak mantendu; eta hiritarren partaidetza europar hauteskunde eta erakundeetan indartu. Alderdi politiko eta erakunde sozial, ekonomiko eta kulturalez osatzen da. Nazioarteko Europako Mugimendu eta Europako Mugimenduaren Espainiako Kontseilu Federalaren kide da.*

*Antolaketa finkatzeko eta iharduera berrasteko urte batzuk pasa eta gero (1995-1997), egun bai barne bai kanpoko sendotze epean dago, ekintza garrantzitsu piloa eginez (1998-2001)*

### • Iniciales aportaciones al federalismo (primera mitad del siglo XX)

En el siglo XX sectores políticos se identifican con las ideas europeístas sugiriendo un encaje del País Vasco en estructuras federalistas estatales y europeas. Durante la II Guerra Mundial se participó en varias iniciativas: propuesta vasca de una Federación Europea; presencia en la Unión Cultural de los Países de la Europa Occidental y en el Consejo de Europa en América y aportaciones doctrinales.

En 1947 se crea el **Movimiento Federalista Vasco** adherido a la Unión Europea de Federalistas. Varios Vascos acudieron al Congreso de Europa (La Haya, 1948). Después se formaron: **Equipo Vasco de los Nuevos Equipos Internacionales; Movimiento Socialista Vasco por la Federación Europea; Grupo Vasco de la Unión Liberal Europea**; y **Grupo Vasco del Congreso de Comunidades y Regiones Europeas.**

### • Creación del Consejo Vasco por la Federación Europea (1949/1951)

Para participar en el Movimiento Europeo era necesario crear un organismo estatal, fundándose en París (febrero de 1949) el Consejo Federal Español del Movimiento Europeo, integrado por Movimiento Socialista por los Estados Unidos de Europa, Unión Liberal, Consejo Catalán y Consejo Vasco. Luego se incorporaron: monárquicos europeístas, federalistas demócrata-cristianos y Grupo Gallego.

El Consejo Vasco supuso el origen del **Consejo Vasco por la Federación Europea**. Se formalizó el 1 de febrero de 1951 en la sede del Gobierno vasco en París, compuesto por: Movimiento Federalista Vasco, Nuevos Equipos Internacionales, Movimiento Socialista Vasco por la Federación Europea, Unión Europea de Federalistas, Consejo Federal de Minorías y Regiones Europeas, Unión Liberal Internacional, Juventudes Federalistas, Sección de Jóvenes de los NEI y Trabajadores Cristianos por la Europa Unida. Entonces se nombró a su primera Junta Directiva.

### • Actividades en el franquismo (1951/1975)

Durante el franquismo el **Consejo Vasco por la Federación Europea** fue el principal organismo vasco de enfoque europeísta y federalista. Pese a radicar en París, se articuló en varias coyunturas una sección clandestina en el interior. En aquellas décadas sus aportaciones más destacadas fueron: complementar la acción exterior llevada a cabo por el Gobierno vasco en el exilio; contribuir a la proyección internacional de la causa vasca; realizar un seguimiento de la integración europea desde un enfoque político, económico, social y cultural vasco; y colaborar con el resto de la oposición al franquismo tanto exterior como interior.

### • Traslado al interior y período de inactividad (1976/1994)

En 1976 el Consejo Federal Español del Movimiento Europeo y sus integrantes, entre ellos el **Consejo Vasco**, se trasladaron al Estado español y se reestructuraron dadas las nuevas condiciones políticas. A finales de los setenta y principios de los ochenta se intentó que el Consejo Vasco fuera revitalizado. Sin embargo, debido a que las prioridades de las fuerzas políticas vascas eran otras, el organismo entró en un período de inactividad hasta los noventa.

### • Relanzamiento del Consejo Vasco del Movimiento Europeo (1994/2001)

Tras contactos entre los grupos políticos del Parlamento Vasco se difundió en abril de 1994 el "Manifiesto por el relanzamiento" del **Consejo Vasco del Movimiento Europeo.** En mayo de 1994 se presentó en Gernika-Lumo. Sus objetivos históricos fueron readecuados: fomento de las relaciones de Euskadi con otros pueblos, regiones y nacionalidades; apoyo a una Europa unida y diversa; mantenimiento de los ideales democráticos y de la construcción de la Unión Europea; y potenciación de la participación de los ciudadanos en las elecciones e instituciones europeas. Está compuesto por grupos políticos y entidades sociales, económicas y culturales. Es miembro del Movimiento Europeo Internacional y del Consejo Federal Español del Movimiento Europeo.

Tras unos años de asentamiento organizativo y reinicio de actividades (1995-97), actualmente se encuentra en un momento de consolidación tanto interna como externa realizando un conjunto de importantes acciones (1998-2001)

# El Consejo Vasco del Movimiento Europeo